Xedapen Orokorrak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

1515

78/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Estatutuak zati batean aldatzea onartzen duena.

Abenduaren 30eko 44/1975 Legearen bidez, Bizkaiko Garraio Partzuergoa eratu zen; toki-erakundearen izaera eta nortasun juridiko propioa zuen, eta partzuergoko erakundeenetik beregaina. Hasieran, Estatuaren Administrazioak, Bilbo Handiko Administrazio Korporazioak (gerora desegina, abenduaren 18ko 3/1980 Legearekin), Bizkaiko Foru Aldundiak eta Barakaldo, Basauri, Bilbao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko udalek osatzen dute Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

Bere sorrera-legeak honako eskumen hauek ematen dizkio Bizkaiko Garraio Partzuergoari: a) «Bilboko Hiri Trena» delakoaren azpiegitura-obren finantzaketan parte hartzea, behin obra horiek eginez gero Estatuaren eskuetatik jaso ondoren eta hiri-trenaren gainegiturako eta ekipamendu orokorreko proiektuak eta obrak burutu eta gero, eta, b) hiri-tren horrek ematen duen garraio-zerbitzu publikoa kudeatzea, zuzeneko kudeaketa erabiliz, hain zuzen ere, partzuergoaren kapitalaz baliatuta sozietate pribatu bat eratuz.

44/1975 Legearen 2. artikuluaren arabera, Bizkaiko Garraio Partzuergoak honako gobernu-organoak izango ditu: Kontseilu Orokorra, Batzorde Eragilea eta kudeaketa-zuzendaria; beren eginkizunak Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Estatutuetan jasota daude. Estatutu horiek ekainaren 18ko 1769/1976 Errege Dekretuaren bidez onartu ziren.

Araubide juridikoari dagokionez, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, lehenengo eta behin, bere araudia du, hain zuzen ere partzuergo hori eratzeko den Legeak eta bere Estatutuek osatua; modu subsidiarioan edo osagarrian toki-araubideko legeria orokorra baino ez da aplikatuko (abenduaren 30eko 44/1975 Legearen 2. artikulua eta Estatutuetako 1.4 artikulua).

Abuztuaren 25eko 2488/1978 Errege Dekretuaren 17. artikuluari jarraiki, Eusko Kontseilu Nagusiari eman zitzaizkion abenduaren 30eko 44/1975 Legean eta bere garapen-xedapenetan araututako eskumenak; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorraren arabera,eskumen horiek autonomia-erkidegoko erakunde edo organo eskudunak gauzatu beharko ditu. Beraz, Euskal Auto-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

1515

DECRETO 78/2010, de 2 de marzo, de aprobación de la modificación parcial de los Estatutos del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

Por Ley 44/1975, de 30 de diciembre, se creó el Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB), con naturaleza de ente local y personalidad jurídica propia e independiente de la de los entes consorciados. Inicialmente, el Consorcio de Transportes de Bizkaia estaba integrado por la Administración del Estado, la Corporación Administrativa del Gran Bilbao (posteriormente extinguida por la Ley 3/1980, de 18 de diciembre), la Diputación Foral de Bizkaia y los Ayuntamientos de Barakaldo, Basauri, Bilbao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao.

La Ley de su creación atribuye al Consorcio de Transportes de Bizkaia las siguientes competencias: a) participar en la financiación de las obras de infraestructura del «Ferrocarril Metropolitano de Bilbao», recibiéndolas del Estado una vez ejecutadas y llevar a cabo los correspondientes proyectos y obras de superestructura y equipamiento general de aquél y, b) gestionar el servicio público de transporte a prestar por dicho ferrocarril, por el sistema de gestión directa mediante constitución de sociedad privada con capital del Consorcio.

El artículo 2 de la Ley 44/1975, de 30 de diciembre establece que el Consorcio de Transportes de Bizkaia estará regido por los siguientes órganos de gobierno: Consejo General, Comisión Ejecutiva y Director Gerente, cuyas funciones se remiten a los Estatutos del Consorcio de Transportes de Bizkaia. Éstos fueron aprobados por medio del Real Decreto 1769/1976, de 18 de junio.

Por cuanto al régimen jurídico se refiere, el Consorcio de Transportes de Bizkaia se rige, en primer lugar, por su normativa específica, constituida por la Ley de su creación y sus Estatutos; siendo solamente de aplicación subsidiaria o supletoria la normativa general de régimen local (artículo 2 Ley 44/1975, de 30 de diciembre y artículo 1.4 de los Estatutos).

En virtud del artículo 17 del Real Decreto 2488/1978, de 25 de agosto, se transfirieron al Consejo General Vasco las competencias reguladas en la Ley 44/1975, de 30 de diciembre y sus disposiciones de desarrollo; competencias que, de acuerdo con la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, han de ejercerse por la institución u órgano competente de la Comunidad

nomia Erkidegoak Estatuaren lekua bete zuen Bizkaiko Garraio Partzuergoan.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak proposamen bat jaso du Bizkaiko Garraio Partzuergoaren estatutuak aldatzeko; proposamen hori aho batez onetsi zuen Kontseilu Orokorrak, 2009ko urriaren 20ko bilkura berezian.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren estatutuen arabera, Partzuergoak honako gobernu-organoak izango ditu: Kontseilu Orokorra, Batzorde Eragilea eta kudeaketa-zuzendaria.

Kudeaketa-zuzendaria pertsona bakarreko organoa da, Partzuergoaren jardueraren zuzendaritza administratiboa eta teknikoa du, eta Kontseilu Nagusiaren eta Batzorde Eragilearen aginduak betetzen ditu. Kontseilu Nagusiaren eta Batzorde Eragilearen bilkuretara joaten da, ahotsa du, baina botorik ez, eta funtsean Partzuergoaren jardueraren zuzendaritza administratiboa eta teknikoa du, beren zerbitzu guztien buru dela.

Ekainaren 18ko 1769/1976 Errege Dekretuaren 18. artikuluari jarraituz, kudeaketa-zuzendaria Kontseilu Nagusiak izendatzen du, horretarako deitutako saio berezi batean, Batzorde Eragilearen eskariz. Sei hilabete iraungo du izendapenak, eta, epe hori bukaturik, segidan doazen epeetarako berretsi ahal izango da. Kontseilu Nagusiari dagokio, orobat, ezarritako epea bukatu aurretik izendapena indargabetzea.

Kontseilu Nagusiak, hala ere, aho batez erabaki zuen estatutuak aldatzeko eskatzea, agintaldia sei urtekoa izatetik hiru urtekoa izatera pasa dadin, oraingo iraupena gehiegizkoa delakoan. Bestalde, nahiz eta Kontseilu Nagusiak emandako konfiantza den kudeaketa-zuzendariaren kargurako izendatu izanaren arrazoia, eta, horren ondorioz, karguaren jabe den pertsonarenganako konfiantza galduz gero, pertsona horrek kargua utzi beharko lukeen arren, kontuan hartu gabe bukatu ote den izendapen-aldia, «justa causa» delakoa egon behar da tartean, Partzuergoaren estatutuen bideragarritasuna bermatzeko.

Azken aurreikuspen hori kentzen da orain Estatutuetatik, eta Kontseilu Nagusiari bidea ematen zaio, konfiantza galtzen duenean, kudeaketa-zuzendaria askatasun osoarekin kargutik kentzeko.

Horrenbestez, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Orokorraren ekimenez eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko martxoaren 2an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

Autónoma. En consecuencia, ésta sustituyó al Estado como integrante del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

El Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes ha recibido propuesta de modificación de los Estatutos del Consorcio de Transportes de Bizkaia, acordada por unanimidad en el Consejo General en sesión especial celebrada el día 20 de octubre de 2009.

Los Estatutos del Consorcio de Transportes de Bizkaia disponen, en su artículo 6, que el Consorcio estará regido por los siguientes órganos de gobierno: el Consejo General, la Comisión Ejecutiva y el Director Gerente.

Este último constituye un órgano unipersonal al que compete la dirección administrativa y técnica de la actividad del Consorcio bajo la superior autoridad del Consejo General y de la Comisión Ejecutiva, y que asiste a las sesiones del Consejo General y Comisión Ejecutiva, con voz pero sin voto, así como ejerce, básicamente, la dirección administrativa y técnica del consorcio, ostentando la jefatura de todos sus servicios.

En virtud del artículo 18 del Real Decreto 1769/1976, de 18 de junio, el Director Gerente es designado por el Consejo General, en sesión especial convocada al efecto, a propuesta de la Comisión Ejecutiva por un período de seis años pudiendo ser confirmado al término del mismo por períodos sucesivos. Así mismo, corresponde al Consejo General, siempre que mediare «justa causa», decretar la revocación del nombrado antes de la expiración del plazo fijado.

Sin embargo, el Consejo General, por unanimidad acordó instar la modificación de los estatutos a fin de que la duración del mandato pase de seis a tres años, al entender que la actual es excesivamente prolongada. Por otro lado, a pesar de que la designación para el cargo de Director Gerente se fundamenta en la confianza otorgada por el Consejo General, y que, en consecuencia, ello debe suponer que una vez perdida la confianza en la persona que ostente el cargo habría de cesar en el mismo, independientemente del transcurso del plazo para el que fue nombrado, los estatutos del Consorcio, en los términos actuales, condicionan su viabilidad a la existencia de «justa causa».

Esta última previsión se elimina ahora de los Estatutos, permitiéndo al Consejo General, cuando exista pérdida de confianza, cesar libremente al Director Gerente de la institución.

En su virtud, previa iniciativa del Consejo General del Consorcio de Transportes de Bizkaia, y a propuesta del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 2 de marzo de 2010,

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Estatutuak zati batean aldatzea. Estatutu horiek ekainaren 18ko 1769/1976 Errege Dekretuak onetsi zituen. Hauek dira aldaketak:

1.– Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Estatutuetako 18.1 artikulua aldatuta geratzen da. Estatutu horiek ekainaren 18ko 1769/1976 Errege Dekretuak onetsi zituen. Honela dio artikulu horrek:

«18.1 artikulua.– Kudeaketa-zuzendaria Kontseilu Orokorrak izendatuko du, horretarako berariaz deitutako bilkura batean, Batzorde Eragilearen proposamenez. Hiru urterako izango da izendatua, eta hiru urte horiek pasatuta berretsi ahal izango da, segidako aldietan jarraitzeko.»

2.– Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Estatutuetako 18.3 artikulua aldatuta geratzen da. Estatutu horiek ekainaren 18ko 1769/1976 Errege Dekretuak onetsi zituen. Honela dio artikulu horrek:

«Kontseilu Nagusiak du, Batzorde Eragilearen proposamenez, kudeaketa-zuzendariaren soldata erabakitzeko ardura. Kontseilu Nagusiak edonoiz erabaki ahal izango du, Batzorde Eragilearen proposamenez, izendatua kargutik kentzea.»

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 2an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

DISPONGO:

Artículo único.– Aprobar la modificación parcial de los Estatutos del Consorcio de Transportes de Bizkaia, aprobados por Real Decreto 1769/1976, de 18 de junio, en los siguientes términos:

1.– Se modifica el artículo 18.1 de los Estatutos del Consorcio de Transportes de Bizkaia, aprobados por Real Decreto 1769/1976, de 18 de junio, con el siguiente contenido:

«Artículo 18.1.– el Director Gerente será designado por el Consejo General, en sesión especial convocada al efecto, a propuesta de la Comisión Ejecutiva. Será nombrado para un período de tres años, pudiendo ser confirmado al término del mismo por períodos sucesivos».

2.– Se modifica el artículo 18.3 de los Estatutos del Consorcio de Transportes de Bizkaia, aprobados por Real Decreto 1769/1976, de 18 de junio, con el siguiente contenido:

«Corresponde al Consejo General, a propuesta de la Comisión Ejecutiva, fijar la retribución del Director Gerente. El Consejo General, a propuesta de la Comisión Ejecutiva, podrá acordar en cualquier momento el libre cese del nombrado».

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de marzo de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.